


Ostatatzaileen gida-liburuxka

Autorik gabe ibiltzeko



TXIK
TXAK

txiktxak.fr

2026

 Pays
Basque
EUSKAL
HERRIA

SYNDICAT
DES MOBILITÉS
PAYS BASQUE-ADOUR
IPAR EUSKAL
HERRIATARRIKO
MUGIKORTASUNEN
SINDIKATUA
SYNDICAT
DE LAS MOBILITATS
PAIS BASCO-ADOR



Eta, uda honetan zure bisitariak la- guntzen bazenu ere, beren autoari oporak eskaintzen?

Gida hau zuretzat pentsatua izan da, **lurraldeko ostatatzaile**, mugikortasun iraunkorrak susta ditzazun zure bezeroei. Honi esker, aterabide praktiko, ekonomiko eta ekologiko guziak deskubrituko dituzu zure egonaldiaz osoki baliatzeko... zure erritmoan eta ingurumen-eragina mugatuz.

TXIK TXAK, Ipar Euskal Herriko garraio-sareak, auto-
bus, bizikleta, joan-jinkari, autokidetza, autopartekatze
eskaintza osoa proposatzen dizu... Zure bisitariak be-
ren egonaldia hirian, itsasbazterrean edo mendian egin,
araberako aterabide sinpleak badaude autorik gabe
ibiltzeko !

AURKIBIDEA



4. Orrialdea

AUTOBUS-LINEAK



6. Orrialdea

BIZIKLETA



7. Orrialdea

ESKAERA BIDEZKO GARRAIOA (EBG)



8. Orrialdea

AUTOPARTEKATZEA



9. Orrialdea

ALDIRIKO APARKALEKUAK



10. Orrialdea

ONGI BIDAIATU TXIK TXAKEKIN

Mugikortasun aterabideak nire autoa erabili gabe



Autobus-lineak

TXIK TXAK sareak 45 autobus-linea baino gehiago zerbitzatu ditu, Ipar Euskal Herri osoan eta Hego Landak, itsasbazterretik barnealdera. Autobus-lineak, baliagarriak, merkeak, erabilerrazak, estresik gabe bidaiatzeko aukera eskaintzen die bisitariei.

Zure bisitariak jakin behar dutena:



Udan, ordutegi zabalagoak: uda osoan, T1 eta 18. lineak gau eta egunez ibiltzen dira! Itsasbazterreko **20 linea baino gehiagok** azken abiatze bat proposatzen dute gaueko 23:00ak eta goizeko 03:00ak artean, ekainetik irailera.



Linea Espresak eta zuzenak lurraldeko gune turistikoetara: Kanboko bainuetxeak, Santinazioko lepoa (Larrungo trenaren abiapuntua), Ezpeleta herria eta bere biper famatua, Iratiko oihana, Maule-Lextarre, Sarako lezeak, Donapaleuko hiri-barne historikoa, Senpereko aintzira edo Atharratze-Sorholüze arrolak.



Udako autobus-lineak

Zure udako bidaiendako (ekainaren 30etik agorrilaren 31ra), gure sareaz balia zaitez.

Hondartza-aldeetik: 30 joan-jinkaria Bidarten gelditzen da eta 29 lineak, Saint-Martin-de-Seignanx eta Ondres Océan arteko zuzeneko lotura zerbitzatu du.

Mendia-aldeetik: 65 eta 66 autobus-lineek mendi-kaskoetaratik eta Iratiko etxoletararik eramanen zaituzte.



TXIK TXAK aplikazioa:

denbora errealeko ordutegiak, geolokalizazioa, bide kalkulagailua... Frantsesez, euskaraz eta ingelesez eskuragarri.



Ostatatzaile gisa, egin

dezakezuna:

👉 Zure ostatalektutik hurbil diren autobus-lineen **ordutegi-fitxak afixa itzazu.**

👉 Zure bezeroei **TXIK TXAK aplikazioa gomenda** iezaziezu: mugitzeko duten lagunik hoberena da, eleanitza eta intuitiboa baita.

Une et le **tour** est joué !



Garraio-tituluak: Zure bezeroen laguntzeko jakitekoa dena:

- ✓ **Ez da gehiago tiketik behar! Gora banku-txartela!**
Autobus-barnean, banku-txartela balioztagailuan pasatzea aski da. Bip bat = bidaiari baliozkoa da!
5 pertsona arte txartel bakar batekin.
- ✓ **Prezio bakarra:**
1,30 € pertsona bakoitz eta bidaiari bakoitz,
edozein izan dadin bidaiari.
- ✓ **6 urtez peko haurrek urrik bidaiatzen dute,** urte osoan, TXIK TXAK linea guzietan!
- ✓ **Txartel batzuk badira,** egonaldi laburrendako, taldeñoendako edo egonaldi luzeendako (1, 3 edo 7 egunekoak, 5 pertsona arte.)
- ✓ **Non eros garraio-tituluak eta txartelak:**
 - **Autobus-barnean** (eskudirua aurreikus ezazu)
 - **TXIK TXAK agentzietan:** Baiona, Miarritze, Donibane Lohizune, Donapaleu
 - **Banagailu automatikoetan** (Tram'bus, tren-geltokiak, Miarritzeko aireportua)
 - **Aldiriko guneetan eta Turismo Bulegoetan.**

Ostatatzaile gisa, egin dezakezuna:

- ☞ **Autobus-barnean,
banku-txartelez baliozkoa
sustatu:**
sustatu: bizkorra, tiketik gabe,
aplikaziorik gabe.
- ☞ **Zure bezeroak TXIK TXAK
agentzia edo salgune hurbile-
nera igor itzazu:** egonaldi-txar-
tela behar izanez gero.
- ☞ **Prezio guziki eta salguneak
hemen aurki ditzakezu:**



Prezioak



Salguneak



Bizikleta

Ibiltzeko modu malgua, ekologikoa eta udan arras egokia!

pony TXIK TXAK + Pony : zerbitzu libreko bizikleta elektrikoa

Ponyrekin lankidetzan, TXIK TXAK sareak **zerbitzu libreko bizikleta elektriko zerbitzu bat proposatzen du.**



Itsasbaterreko eta Hirigune-hegoko **12 hiritan** presente da (Angelu, Baiona, Miarritze, Biddarte, Bokale, Ziburu, Getaria, Hendaia, Hiriburu, Donibane Lohizune, Tarnose eta Urruña). Bizikleta horiek, **geolokalizagarriak dira TXIK TXAK aplikazioan**, eta desblokea daitezke **Pony** aplikazioaren bidez.

Itsasbazterra ezagutzeko eta eguneroko joan-jinak egiteko bikaina, bakarrik edo binaka, **Pony bikoitza** modeloari esker.



Bizikleta-gune seguruak gau eta egunez

Bizikleta + autobusa edo trena batzeko, TXIK TXAK sareak **10 bizikleta-gune seguru** uzten ditu erabiltzaileen esku, **geltokietatik eta aldiriko aparkalekuetatik** hurbil.

Gune horietan, errotak hantzeko ponpak, konpontzeko tresnak eta, batzuetan, LEB kargatzeko guneak badira.

Kokapena: Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Arrosa, Haltsu-Larresoro, Milafranga, Teknogunea, Garros aldiriko aparkalekua, Miarritzeko geltokia, Hendaiaiko geltokia

Sartzea urrik TXIK TXAK abonatuentzat / Ordainpekoa noiztenkako bisitariarentzat, **Vélock** aplikazioaren bidez (2 € eguna / 7 € hilabetea).



Ostatatzaile gisa, egin dezakezuna:

Pony alokatzearen buruzko berriak eman iezaiezu zure bezeroei

Hondartzetara edo hiri barneetara joateko, bizikletaren erabiltzea susta ezazu.

Harlekuan, Pony edo TXIK TXAK bizikleta-gune hurbilen kokapenak afixa itzazu



Eskaera Bidezko Garraioa (EBG)

Ipar Euskal Herriko 148 herritan erabilgarri, zerbitzu horrek autobus geldileku batera, hiri barnera edo saltegi batera joateko bidea eskaintzen du, urrun diren auzo edo herri batetik.



Autorik ez duten bisitarientzat aterabide ezin hobea da, batez ere egoiliar-logela, aterpetxe edo kanpin batean ostatatuak direlarik.

Argibide baliagarriak :


- Erreserbak txiktxak aplikazioan, online txiktxak.fr/eus webgunean edo telefonoz **05 47 75 76 64** zenbakira
- Astelehenetik larunbatera ibiltzen da, **07:30etik 19:00etara** (19:30era itsasbatterean)
- Prezio bakarra : **1,30 €** (TXIK TXAK garraio-titulu eta txartel guziak onartuak dira)
- Autobus-barnean ordain daiteke eskudiruz edo SMS tiket bidez ("TAD" igorri 93064 zenbakira)
- Ibilgailua mugikortasun **urriko pertsoneri egokitua zaie**, eroso da.






Mugikortasun Urriko Pertsonen eskaera bidezko Garraioa (MUPG)

TXIK TXAK-ek garraio-eskaintza egokitu bat proposatzen die Inklusio Mugikortasun Txartela duten pertsoneri. Zerbitzu hori, aitzinetik erreserbatuz erabilgarria da, eta atez ate ibiltzeko aukera ematen die bisitariari, itsasbattereko 23 herritan.

Zerbitzua ibiltzen da :

 Igandetik ostegunera, 07:30etik 19:30era Ostiral, larunbat eta besta egunetan (salbu maiatzaren 1ean), 07:30etik 23:00etara.

Ostatatzaile gisa, egin dezakezuna:

-  **Erreserben elkartzea sustatu.** Ibilgailuan **8 pertsona sar daitezke** : zure bezeroak **ateraldiak edo erosketak elkartzera** sustatu! Horrek lekua libratuko du beste bidaiarientzat eta zerbitzuaren erabilgarritasuna hobetzen du denentzat.
-  **Zure bezeroei EBGaren berri eman**, autorik gabeko egonaldiei ezin egokia zaien aterabidea.
-  **Erreserba egiteko argibideak afixatu argiki** (webgunea, telefonoa, SMS).

QR kode hau eskanatu erreserbatzeko edo argibide gehiagorako.





Autopartekatzea

aupa  L'autopartage Citiz
au Pays Basque

Autoa, zinez behar dugularik!

TXIK TXAK **AUPA Citiz**ekin elkartzen da autopartekatze zerbitzu sinple eta malgu bat proposatzeko, engaiamendurik gabe.

Desbokatzea klik batzuen bidez egiten da, telefono bidez, egunero, gau eta egunez.



Non?

7 geltoki hiri-barneetan edo TXIK TXAK mugikortasun guneeetatik hurbil, **Baionan, Angelun, Miarritzen eta Tarnosen. 9 auto zerbitzu librean** (hiriko autoak, ibilgailu utilitarioak...).



Zergatik praktikoa da?

- ✓ Abonamendurik ez da behar : erabiltzean soilik ordaintzen da
- ✓ Ezantza eta segurua barne
- ✓ Ezin hobea ohiko bideetatik kanpoko egun bateko ateraldirako
- ✓ Autobusa, bizikleta eta trenaren osagai bikaina



Argibide gehiago:

aupa.citiz.fr
edo Citiz aplikazioaren bidez



Ostatatzaile gisa, egin

dezakezuna:

- Autorik gabe edo trenez dabilzan bisitariei, **autopartekatzea gomendatu.**
- Zerbitzuaren **malgutasuna azpimarratu:** giltzarik eta formalitaterik ez.
- Zure ostatalektik **hurbilenak diren geltokiak afixatu.**



TXIK TXAK aldiriko aparkalekuak

P+R Abilki aparkatu, lasaiki bisitatu

Auto galkadurak murrizteko eta sasoi betean aparkatzeari loturiko trabak saihesteko, TXIK TXAK sareak **urririkako 20 aldiriko aparkaleku** proposatzen ditu, garraio sareari lotuak.



Funtzionamendua

- ✓ Aparkatzea **urririk** TXIK TXAK garraio-titulu bat duen bidaiariendako
- ✓ Lotura zuzena **autobusez** edo **Tram'busez** hiri barneetara, hondartzetara eta gune turistikoetara
- ✓ Hiri inguruetan ostatatuak diren edo autoz datozen bisitarien zentzuz ezin hobea

Zure bezeroei gomendatzeko zenbait aldiriko aparkaleku:

- **Baiona Gainetako aldiriko aparkalekua** → Baionako hiri-barnea **10 minutuz T1 linearen bidez** (autobus bat **10 minutu guziaz**)
- **Garros aldiriko aparkalekua** → Tarnoseko eta Baionako hiri-barneetara **T2 linearen bidez** (autobus bat **15 minutu guziaz**)
- **P+R Iraty (Miarritze)** → Miarritzeko hiri barnerat joateko, 5 eta 31 lineekin (autobus 1, 10 minutu guziaz)
- **Ilargia aldiriko aparkalekua (Donibane Lohizune)** → hiri-barnera **10 minutuz 3. linearen bidez** (autobus bat **15 minutu guziaz**)
- **Hondartzak aldiriko aparkalekuak Angelun, Bidarten, Getarian, Ondresen** → hondartzetara erraz heltzeko **TXIK TXAK udako lineen bidez**



Aldiriko aparkaleku hurbilena aurki ezazu

Ostatatzaile gisa, egin

dezakezuna :

- ☞ **Zure bezeroak aparkaleku horietara zuzendu auto galkadurak saihets ditzaten.**
- ☞ **Garraio-tituluak aparkatzea barne hartzen duela azpimarratu (autobus-barnean bankuko txartelez eginiko balioztatzeak ere).**
- ☞ **Bezeroak TXIK TXAK aplikaziora** edo txiktxak.fr webgunera zuzendu aldiriko aparkalekuen zerrenda aurki dezaten.



Ongi bidaiatu TXIK TXAKekin!

Zure bisitariak autobus-barnean ohitura onak hartzen lagundu!



Gidariari keinu egin

Ez ahantz gidariari keinu egitea: autobusa geldituko da soilik ikusten bazaitu hurbiltzen delarik.



Balioztatu igotzen zaren aldi oro

Bankuko txartel, garraio-txartel edo tiket baten bidez, balioztatzea ezinbestekoa da bidaiia bakoitzerako, loturetarako ere!



Autobus-barnean, besteez oroitu!

Denen erosotasunarendako:

- ✓ Autobusaren gibelerara joan
- ✓ Haur karrosak bildu
- ✓ Lehentasunezko jarlekuak libre utzi



Jaisteko prest izan

"Geldialdia galdegi" botoia zapatu nahi duzun geldilekua baino hamar bat metro lehenago.



Autobus-barnean haizu dena

(lekurik gelditzen den neurrian):

- ✓ Surf oholak, 2 metrokoak gehienez (eskuetan eramanak) edo sotoan, autobusetan, zorro batean
- ✓ Bizikleta plegagarriak, gurpil aulkiak
- ✓ Animalia ttipiak kutxa hetsietan edo zakur laguntzaileak

Argibide baliagarriak & laguntza

**Duda bat, galdera bat edo zure bezeroaren eskaera bat baduzu?
Bide onetara bidera itzazu:**



Telefonia

05 47 75 76 64

Astelehenetik larunbatera: 07:00 - 20:00
Igandeetan eta besta egunetan (salbu maiatzaren 1ean): 09:00 - 12:30 / 14:00 - 17:30



Sare sozialak Facebook & Instagram :

@txiktxakpaysbasque



Helbide elektronikoa

Edozein argibide eskaerendako, eskabideendako edo seinalatzeendako (helgarritasuna barne), erantzuna 7 egun barne.

<https://www.txiktxak.fr/txik-txak-et-moi/contactez-nous/>

Harremanetarako inprimakia
4 hizkuntzetan eskuragarri.



Galduriko puskak

Galduriko pusken atala hemen:

<https://txiktxak.franceobjetstrouves.fr/>






Horaires de bus Autobus-ordutegiak

Horarios de autobús
Bus schedules



Tarifs Prezioak

Tarifas
Fares



Points de ventes Salguneak

Puntos de venta
Points of sale



Contact Kontaktua

Contacto
Contact

